

Gazte Geografia.	1	2014	p: 39-51	ISSN 2341-3239
------------------	---	------	----------	----------------

# PIRINIOETAKO ESKI-ESTAZIOAK URTAROKOTASUNAREN AURKA

Onartuta:2014-06-06

**Edurne AGIRRE ITURBE<sup>1</sup>**

Deustuko Unibertsitatea

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea- Donostia

**Laburpena:** Urtarokotasuna ikerketa eremu garrantzitsua da norako turistikoentzako. Ikerketa honek espainiar aldean aurkitzen diren eski-estazioen egoera aztertzen du, beraien historia turistikoa eta baliabideak ezagutuz. Bertako urterokotasunaren arazoa behatuko da eta aurrera eraman diren ekintzak aipatuko dira eredu bezala. Modu honetara, urtarokotasunari aurre egiteko sortu diren produktu berrien egoera eta iraunkortasuna aztertuko dira.

**Hitz gakoak:** Pirinioak, Urtarokotasuna, Eskia, Turismoa, Iraunkortasuna

**Resumen:** La estacionalidad en cuanto a destinos es un ámbito de estudio muy relevante. Este estudio analiza la situación de las estaciones de esquí situadas en la parte española de los Pirineos, conociendo su historia turística y sus recursos. Se analizará su problema de estacionalidad y las acciones llevadas para su solución serán mencionadas. Asimismo, el estudio analizará los nuevos productos turísticos creados y sus sostenibilidad.

**Palabras clave:** Pirineos, Estacionalidad, Esquí, Turismo, Sostenibilidad

**Abstract:** Destination seasonality is one of the most relevant fields of research in tourism. This study will analyze the situation of the ski resorts located in the Spanish part of the Pyrenees, researching their tourism history and resources. Their seasonality problem and the action that have been taken will be analyzed. Moreover this study will examine the new tourism product and their sustainability.

**Keywords:** Pyrenees, Seasonality, Ski, Tourism, Sustainability

---

<sup>1</sup> Jagolea: Imanol Goikoetxea Lopez. Deustuko Unibertsitatea. irakaslea.

## 1 SARRERA

Lan honen bidez Pirinio Mendikatearen espainiar aldean dauden eski-guneetan ematen ari diren turismo kudeaketa proiektu ezberdinak aztertu nahi dira, beraien urtarokotasunari konponbide bat emateko egiten ari diren ekintzak behatu eta beraien bideragarritasuna ikusteko asmoz, hain zuzen ere. Pirinioetako turismoaren egoera ikuspuntu ezberdin ugaritatik aztertu daiteke, inpaktu natural eta soziala aztertuz besteak beste, baina proiektu honek espainiar Pirinioetan aurkitzen diren eski-estazioen arazo turistikoa aztertu nahi du: urtarokotasuna.

Lurralde eta produktu honen hautaketa balorazio pertsonal baten ondorioa izan da, Pirinioak bertan izanda eta beraien urtarokotasun gogorra bertatik ikusita, turismo politika berezi bat aztertzeko aukera bat bezala ikusten dudalako. Izan ere, sarritan beste mota bateko turismo politika edota norakoak aztertzen dira, beraien potentziala edota eraldaketa behatuz. Honenbestez, Pirinioek urtarokotasunaren aurkako borrokan sortutako produktu turistiko alternatiboak aztertzea turismoaren beste alderdi bat ezagutzeko eredu paregabea da, beraien klima dependentzia kontuan hartuta.

Modu honetara, proiektu hau aurrera eraman ahal izateko, norakoa eta bartako baliabideak aztertuko dira, halaber, bertako turismo produktu tradizionalaren eta alternatiboen elkarketa. Era berean, sortu berri den produktuaren behaketa bat egingo da, besteak beste, bezero mota eta iraunkortasuna aztertuz. Amaitzeko, produktuaren balorazio pertsonal bat egingo da eta proiektu honekin ondorioztatutakoa azalduko da.

## 2 NORAKOAREN ETA BALIABIDEEN AURKEZPENA

Pirinio Mendilerroa Bizkaiko Golkotik Mediterraneoraino hedatzen den mendilerroa da, Espainia eta Frantziaren arteko muga historikoa izanik. Bi sakonune handiren erdian kokatuta dagoen mendilerroa da, izan ere, iparraldean Akitania eta Languedoc aurki daitezke eta Ebro arroa hegoaldean. Pirinioetako gailurrik garaiena Aneto den arren, 3.404 metrorekin, anitzak dira 3.000 metro inguruko mendiak Pirinio Mendilerroak hartzen dituen 450 kilometro luzeetan. (*Lur Hiztegi Entziklopedikoa, 1994*).

Eski-estazioei dagokienez, aipatzekoa da Pirinioak direla espainiar mailan eski-estazio gehien biltzen dituen mendilerroa, estatuko 34 estaziotatik 17 bertan aurkitzen baitira. Aitzitik, esan daiteke espainiar mailan eskia praktikatzeko gune edota nukleo garrantzitsuena dela Pirinioen espainiar aldea (*Nevasport, 2014*). [Ikusi 1.Eranskina, 11.orr]

Zalantzarik ez dago, beraz, natura eta mendilerroan bertan aurkitzen diren gailurrak direla Pirinioen baliabide turistiko nagusiak. Zehazki, bertako klima baldintzen ondorioz pilatutako elurra baliabide garrantzitsuena dela esan daiteke, izan ere, lan honetan sarritan aipatuko den moduan, Pirinioetako turismoa neguarekin eta elurrarekin estuki loturik dago.

Ezin dira alde batera utzi, ordea, Pirinioetan aurkitzen diren bailara, laku edota herrixka txikiak, baliabide turistiko garrantzitsuak baitira. Negua igarotzean, eta berarekin elurra, Pirinioen baliabide turistiko nagusia agortzen da, bertako bailara berde eta basotsuak agerian utziz. Modu honetara, baliabide berdin batetik (mendilerroko natura) bi adar ezberdin aurki daitezkeela esan daiteke, alde batetik elurraren baliabidea eta bestetik natura berdea eta menditsuarena. Jakin al dute Pirinioek ordea baliabide hauek behar bezala ustiatzen?

### 3 TURISMOAREN GARAPENA, HISTORIA ETA ARAZOA

Nahiz eta Pirinioak unitate geografiko, etniko eta historiko bakar bat bezala kontsideratu, kontuan hartu behar da bere bailara bakoitzak berezitasun espezifiko batzuk dituela, bai fisiologikoki bai kulturalki. Beraz, lurralde bakoitzean berdin gertatu ez zen arren, Pirinioen osotasuna hartuko da aintzat norakoaren historia eta garapena aztertzeke.

Ekonomiaren ikuspuntutik aztertuz gero Pirinioek historian zehar izan duten aldaketa, mendietako lan tradizionala izan da jarduera ekonomiko nagusia, hau da, abeltzaintza eta nekazaritza. Ulegarria den moduan, Pirinioetako gune altuetan abeltzaintza lantzen zen eta baxuetan nekazaritza, bertako topografia dela eta. Ingurugiroaren baldintza gogorrak, ordea, biztanleria Pirinioetako inguru baxuetara migratzen hastea ekarri zuen, mendietan kokaturako herrien despopulaztea sortuz. Jarduera ekonomiko berri bati hasiera eman zitzaion ordea XX.Mendeko 60.hamarkadan: Turismoa (*Font-Garolera, Jaume, 2010*).

Pirinioetako turismoaren garapena beste norako askorenaren antzera gauzatu zen, turismoa indarra hartzen ari zen sektorea zen eta XX.Mendean gertaturako masa-turismo fenomeno europarrarekin are eta gehiago zabaltzen hasi zen. Nahiz eta lehenik Pirinioen frantziar aldea garatu zen turismo aspektuan, urte gutxiren barruan iritsi zen boom turistikoa espainiar aldera. Aldaketa hau azaltzen duten faktore nagusiak elurra eta mendi zaletasuna izan ziren, azpiegituren eta bizi kalitatearen hobekuntzarekin batera. Modu honetara, alpetar bereizgarriak dituzten gune menditsuetan eski-estazioak sortu ziren, beraien hotel eta jatetxe sareekin, eskaera turistikoari erantzuteko asmoz. Esan beharra dago, ordea, eski-estazio horien sorrera higiezinen sektorearekin ere estuki loturik dagoela, bertan eraiki ziren bigarren etxebizitzengatik (*Font-Garolera, Jaume, 2010*).

Eskia eta elurra Pirinioetako turismoaren eta ekonomiaren oinarrietako bat da gaur egun, horren adibide da Aragoiko Pirinioetan elurrarekin lotutako kirolek Barne Produktu Gordinaren %12 osatzen dutela. Aragoiko eski-estazioek (2012an milioi bat turista jaso zituzten) 140 milioi eurotako irabaziak sortu zituzten 2013an eta horietako %20 soilik izanik sarreren erosketagatik. Beraz, esan daiteke bertako hotel, denda, jatetxe, etab. izan zirela onuradun handienak. Izan ere, 2013ko negu kanpainan elurrarekin estuki lotutako 800 lanpostu sortu baziren ere, beste 15.000 zeharkako lanpostu sortu zirela estimatzen da (*ABC, 2013*).

Hala eta guztiz ere, eskiaren eta masa-turismoaren garapenak bere ondorioak ekarri ditu Pirinioetara. Larre eta basoen okupazioa izan da ondorio nagusienetako bat, mendietako lan tradizionalari lekua kentzen baitio, hau da, urte osoan zehar aberasgarria den sektore bat urtarokotasun nabaria duen sektore batengatik desagertzen ari da. Bide honetatik, uraren erabileraren, kutsaduraren eta ingurugiroaren suntsiketa izan dira gertutik jarraitu dioten arazoak, urbanizatze gogorra eta biztanleriaren bizimodu aldaketarekin batera (*Font-Garolera, Jaume, 2010*).

### 4 URTAROKOTASUNA

Pirinioetako urtarokotasun arazoa aurkezteko asmoz, hainbat kasu eta egoera aztertuko dira atal honetan.

Baqueira-Beret da aztertzen ari garen kasuko eredu garbienenetako bat, 72 pista dituen eski-estazio honetan 94 biztanle egonkor soilik daude baina urteko sasoi ezberdinetan 10.000 edota 20.000 pertsona izatera iritsi daiteke. Egoera berdina pairatzen du eski-estazio honetatik gertu dagoen herri handienak, Naut Aran, hotel eta jatetxe sare zabala duena.

Beraz, argi ikus daiteke inguru honetako herrietako irabazi ekonomikoak neguko turismora loturik daudela, bertako 94 biztanle ez baitira gai bertako azpiegitura eta turismo enpresei erantzuteko behe denboraldian (*Torres Delgado, Anna, 2008*).

Aragoi eta Huescari dagokionez ere, antzeko egora pairatzen dutela antzemango dugu. Adierazgarria da Espainia mailan aurkitzen diren beste norako batzuekin alderatuz, beste turismo mota bat dutenak, argi ikus daitekeela ez soilik Pirinioak (kasu honetan kataluniarrak) hoteletako okupazio baxuagoa dutela, baita hilabeteetan zehar izaten duten urtarokotasuna ere [Ikusi 2.Eranskina, 11.orr].

Bertako hotelen okupazio maila ere aztertuz gero, estatukoaren oso azpitik dagoela ikusiko dugu eta, gainera, eboluzio negatibo bat izaten ari dela [Ikusi 3.Eranskina, 12.orr]. Honen ondorioa da azken urteotan Huescan ematen ari den egora, eskainitako plazen murrizketa. Izan ere, azken urteotako datuek adierazi duten bezala, neurritz kanpoko eskaintza dago probintzian, behe denboraldian mantentzeko gai ez direnak. Beraz, argi antzeman dezakegu turismoaren urtarokotasunak eta mugatutako indarra duten lurraldeak, baliabideen izaera puntualaren ondorioz, lurralde oreka zailtzen dutela (*OTH, 2012*).

## 5 PRODUKTU ETA NORAKOAREN BIRSORKUNTZA PROZESUA

Egoera guzti honen ondorioz, gaur egun, Pirinioetako eski estazioak eta inguruko herriak, Naut Aran adibidez, gogor ari dira lanean turismoaren sektoreari ahalik eta probetxu gehien ateratzeko eta mendilerroko egoera hobetzeko. Izan ere, aipatutako arazo guztiei klima aldaketa eta merkatuaren exijentzia berriak gehitu behar zaizkie.

Generalitat de Catalunya izan zen egoera honen aurrean esku hartu zuen lehenetarikoa espainiar Pirinioetan. Izan ere, *Pla interdepartamental d'estacions de muntanya (2006)* plan estrategikoarekin, eski-estazioen aldatze prozesua martxan jarri zuten, horiek mendi-estazio bihurtzeko eta urte osoko eskaintza egonkor bat sortzeko helburuarekin. Bide honetatik, egungo merkatuari erantzuteko asmoz, neguko produktu turistikoak mantendu (eski alpinoa eta nordikoa, snowboard, etab. ) eta udako produktu berriak bultzatu ziren (mendi-ibiliak, eskalada, mendi bizikleta, abentura kirolak, etab.).

Elurretan oso zentratuta zegoen eskaintza turistikoa dibertsifikatu eta utarokotasuna saihesteko asmoarekin, Cataluniak inbertsio ugari egin ditu zentro termal, natura parke, abentura gune edota interpretazio zentroetan, bertako tradizioa eta kultura bultzatzen dutenak. Izan ere, Pirinioetako identitate kulturala eta bertako ondarea balioztatzearekin gaur egungo "esperientzia turismoari" erantzuna eman nahi diote (*Font-Garolera, Jaume, 2010*).

Huescan ere bide berdinetik jarraitu dute, turismoaren estrategia berri baten beharra antzeman dute eta badira zenbait erakunde publiko eta publiko-pribatu lanean ari direnak lurraldeko turismoaren sustapenean eta dibertsifikazioan, Aramon edo Prodesa besteak beste. Turismo tipologia berriak bultzatzea da helburu nagusietakoa, adibidez, turismo gastronomikoa, zientifikoa, ehiza eta arrantzakoa, erlijiosoak, etab. Hala eta guztiz ere, lan horiek oraindik ez dute erantzun positibo nabaririk eman (*OTH, 2012*).

## 6 EKINTZA MOTAK

Gaur egun, beraz, ekintza mota ugari dira urtarokotasunari aurre egiteko sortu direnak. Val D'Aran da ekintza hauen eredu nagusienetako bat, izan ere, "*Desestacionalización*,

*Especialización e Internacionalización del Turismo*” proiektuarekin erantzun zehatz eta iraunkor bat eman nahi diote arazo honi.

Alde batetik, proiektuaren helburuetako bat merkatuaren dibertsifikazioa da, Pirinioetako merkatua nazionala izanik urtarokotasunaren faktore bat baita. Modu honetara, alemaniar, frantziar eta merkatu ingelesetara zabaldu nahi dute beraien eskaintza. Bestetik, beraien produktu turistikoaren kalitatea bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko, kalitate ziurtagiriak lortzeko hobekuntzak ari dira aurrera eramaten.

Urtarokotasunari erantzuna emateari dagokionez, espezializazioa hartu dute jarraibide bezala Val D’Aranen, merkatuaren segmentazioa eta egokitzapena oinarri hartuta. Produktu berrien sorkuntza da azken urte hauetan duten helburu nagusia, esperientzietan oinarritzen direnak egungo merkatuari erantzuteko. Bide honetatik, bertako ingurugiroa kontuan hartuz, kirol turismoaren hazkundera lortu nahi dute. Alde batetik, lehentasun handiena duten produktuak mendi-ibiltaritzak eta natura orokorki dira. Bestetik, lehentasun baxuago bat duten produktu turistikoak osasunarekin loturakoak dira, BTT eta abentura kirolekin batera. Amaitzeko, MICE turismoa, turismo kulturala eta gastronomikoa dira lehentasun mailarik baxuena duten produktu turistikoak (*Val D’Aran, 2010*). [Ikusi 4.Eranskina, 12.orr]

- **Mendi-ibiltaritzak:** merkatu garrantzitsu bat duen produktua da, izan ere, 35 milioi ibiltari aktibo daude Alemanian bakarrik. Seinaleztapen-sistema martxan jarria da eski-estazioetan elurrik gabeko hiletan turistek erantzuna emateko (300 km baina gehiago). Val D’Aranen bertan enpresa ekintza interesgarriak daude martxan: Carros de Foc, Setau Sagèth, Camin Reia, etab. (*Val D’Aran, 2010*).
- **BTT:** Val D’Aran BTT kirolaren norakoa bilakatu nahi da, Alpeetan eta Ameriketako Estatu Batuetan izan duen garapena eta sortu dituen irabaziak kontuan hartuta atzean merkatu garrantzitsua dagoela antzeman daitekeelako. Adierazgarria da Frantzia eta Alemanian 3,5 milioi turista potentzial daudela uste dela BTT-arekin lotuta eta Pirinioen kokapen estrategikoa kontuan hartuta zalantzarik ez dago merkatu oso garrantzitsua bilakatzen dela esatean. Erantzuna emateko asmoz 400 km baino gehiago aurki daitezke haran honetan BTT praktikatzeko seinaleekin eta Pedals de Foc edota Pedals d’Occitania enpresa ekintzak ari dira aurrera eramaten (*Val D’Aran, 2010*).
- **Osasun Turismoa:** Pirinioak espainiar mailako norakorik hoberenatarikoak dira osasun turismoa praktikatzeko, bertako bainuetxe eta spa-hotelengatik. Bai kataluniar Pirinioek bai aragoitarrek osasun azpiegitura ugari dituzte eta lanean ari dira turista internazionalak bertara erakartzeko. Izan ere, osasun zerbitzuek eta kirola egiteko aukerak aukera paregabea ematen die turistek beraien osasunarekin lotutako oporraldiak igarotzeko (*Val D’Aran, 2010*).
- **Abentura Kirolak:** Mendi piriniarrek abenturazko kirolak praktikatzeko ingurugiro paregabe eskaintzan dute, turismo aktibora bultzatzen dutenak. Eskalada, espeleologia, barrankismoa eta rafting-a dira, besteak beste, Pirinioetan praktika daitezkeen abenturazko kirolak. Gero eta gehiago dira mota honetako produktu turistikoak eskaintzen ari diren enpresak espainiar Pirinioetan, izan ere, urte osoan zehar egonkorra izan daiteken turismo mota baten aurrean aurkitzen dira.

## 7 ZUZENDUTA DAGOEN PUBLIKO MOTA

Pirinioetako turista motari erreparatuz gero, aurki antzeman daiteke kirolak lurraldean duen garrantzia, bertako ingurugiroak horretara bultzatzen baitu. Aragoian, adibidez, turisten Gazte Geografia. 1 (2014), p. 17-38; ISSN 2341-3239

kirola praktikatzeko motibazioa estatuarenaren oso gainetik aurkitzen da, %35koa izanik. Gainera, nola ez, eskia da gehien praktikatzen den kirola, aire librean praktikatzen direnekin batera (*Gobierno de Aragón, 2012*). [Ikusi 5.Eranskina, 13.orr].

Gaur egun garatzen ari diren politika turistiko berriei dagokionez, turisten motibazioek bide berdinetik jarraitzen dutela esan daiteke, aipagarri berezi batekin:esperientzia. Pirinioek egun eskaintzen duten turismoa, edo eskaini nahi dutena, egungo turistetara egokitzen da eta segmentu bakoitzari dagokion produktua sortzen dute. Bide honetatik, turismo espezializatua kontsumituko duen turistaz ari gara, norako zehatz batetara mugitzen dena motibazio espezifiko batekin.

Pirinioen urtarokotasunaren aurkako borroka hau turista espezializatu eta zorrotzetara zuzentzen da, elurraz gain zerbait gehiago aurkitu nahi duena. Beraz, jakinik turista mota honek ohiko turista baina eskuratzeko ahalmen handiagoa duela eta produktu oso zehatza eta kalitatezkoa bilatzen duela, Pirinioetan eskaintzak bide honetatik jarraitzeko behar handia du (*Gobierno de Aragón, 2012*).

## 8 ZAILTASUNAK

Espaniar Pirinioek beharrezko lehengaiak dituzte urte osoko turista fluxu bati erantzuteko baina hainbat zailtasunen aurrean aurkitzen da urtarokotasunaren aurkako borroka honetan. Alde batetik, Alpeen egoera aipatu behar da, Europa mailako mendikate famatuenerarikoa izanik, produktu turistikoa gertutik aztertu eta kudeaketa egoki bat eraman dute aurrera. Alpeetako eski-estazioak urteak daramatzate elurrik gabeko hilabeteetan turismo mota berriei erantzuten eta produktu berriak sortzen, aitzitik, beraien kokapen estrategikoak ere asko laguntzen die.

Erakarpen indar horren faltan norakoaren irudi kokapenari atxikitzen zaio zailtasuna, modu orokor eta espezifikoan kokapenik ez duela uste baita. Honi erantzuteko asmoz ari dira lanean, hain zuzen ere, bai Aragoi bai Katalunia. Pirinioetan dituzten eski-estazioak, bailarak eta herriak bultzatu nahi dituzte atzerrian eta horretarako argi dute irudiaren kokapena dela gakoa. Hau azaltzeko, web orrien eraldaketa prozesua adierazgarria da, Pirinioek elurraz gain zerbait gehiago eskaintzen dutela adieraztea helburu dutela argi ikusten baita (*Val D'Aran, 2010*).

Bestalde, aipagarria da eskaintzaren egokitzapen falta merkatu internazionaletik. Hizkuntza maila ez egokia (ingelesa edo frantsesa), kultura aldaketa edota langile gaituen gabezia azpimarratzen dira zailtasun nagusi bezala baina ohartarazpen berantiarra izan daiteke gakoa. Izan ere, mota berdineko beste norakoak eraldaketa prozesuak aurrera eramaten ari ziren bitartean, Pirinioak ez dira gai izan erantzun azkar bat emateko (*Val D'Aran, 2010*).

## 9 IRAUNKORTASUNA

*“Garapen iraunkorra da gaur egungo belaunaldiaren beharrak asetzen dituen, etorkizuneko belaunaldiak beren beharrak asetzeko izango duten ahalmena kolokan jarri gabe” (Turismoaren Oinarrizko Eskuliburua, 2008).*

Gaur egungo edozein turismo garapen proiektu bezala, iraunkortasuna ardatz hartu behar dute Pirinioek. Alde batetik, ingurumenaren iraunkortasuna kontuan hartuz gero, Pirinioetako natura eta baliabideen etorkizuna bermatu behar da turismo mota berri honen bitartez. Iraunkortasun naturalean ordea ez da baliabideen kaltea soilik behatu behar, kontuan hartu behar da bisitarien gehiegizko kopuruak, nahiz eta ingurunea ez kaltetu, norakoaren

erakargarritasuna suntsi daitekeela. Beraz, urrezko arrautzen oiloa ez hiltzeko, Pirinioetako baliabideen egoera eta karga ahalmena aztertu beharko da.

Bestetik, iraunkortasun sozial eta ekonomikoari gertutik begiratu behar zaio, izan ere, ekonomikoki etekinak sortzen dituen edo ez aztertzea erraza den arren, garapen soziala behatzea lan konplexua da. Bide honetatik, norakoaren eta bertako biztanleriaren garapena bermatu behar da, hau da, turismoak ondorio positiboak izatea bertako bailaretan, bai ekonomikoki bai sozialki.

Amaitzeko, iraunkortasun kulturala bermatu behar da, bertako kulturak eta identitateak bultzatuz eta berauek balioztatzen. Sarritan turismoa kultura eta ohiturak berreskuratzeko tresna bezala erabil daiteke, horiek bultzatzean eta eskaintza barruan sartzean sarritan beraien iraupena bultzatzen baita.

Pirinioetan izan den turismoari eta egungo produktu berriei erreparatuz gero, iraunkortasunaren bi perspektiba berez ditzakegu. Eskiaren inguruko turismoari dagokionez, iraunkortasunari erreparatu urria egin zaiola antzeman genezake, ez baititu iraunkortasunaren alde sozial, ekonomiko eta kulturalak kontuan hartzen. Natura eta elurra dira beraien kezka bakarrak, turismo mota hori mantentzeko beharrezkoak baitira, baina norako baten iraunkortasuna bermatzeko beste alderdiekin bateratze bat beharrezkoa dela kontuan hartu behar da.

Horixe da, hain zuzen ere, gaur egungo turismoaren bidea eta Pirinioetan ematen ari diren ekintzena. Natura oinarritzat hartuta, erabilgarritasun handiagoa eta dibertsifikatuagoa eman nahi zaio, urte osoan zehar irabazi ekonomiko batzuk sortuko dituen eta bertako biztanleriarekin eta kulturarekin bateratuko dena. Beraz, turismo mota iraunkor baten aurrean daudela esan genezake, ekintzak bide onetik ematen badituzte behintzat.

## 10 ONDORIOAK

Proiektu honen bidez ondorio nagusi bat antzeman daiteke, turismoa Pirinioen etorkizuneko sektorea dela eta hori lortzeko lan egin behar dutela. Turismoaren garrantzi ekonomikoa kontuan hartuz gero, bai mundu mailan bai espainiar mailan, bertako bailarentzako garapen tresna bilakatu daiteke, kudeaketa egoki bat aurrera eraman ezker behintzat.

Turismo piriniarra eskia praktikatzeko aukera baino gehiago ematen duen lurralde batean garatzen da eta zentzu zabal batean ulerturako kalitatezko ingurua eskaini behar du turismoa garatzeko. Hau da, egungo merkatuaren exijentziei erantzungo dien kalitatezko zerbitzuak sortu; ingurugiroa mantendu eta paisai erakargarriak izan; bertako identitatea eta kulturari balioa eman eta turismo perspektiba zabaldu. Identitatea eta benetakotasuna gaur egungo turismoaren oinarriak dira.

Bi alderdi horiek bultzatzeko, bertako biztanleriarekin batasun estrategiko bat egitea beharrezkoa da, eskaintza turistikoaren osagarri bihurtuz baliabide turistikoa handitu eta aberastuko baitute. Modu honetara, Pirinioen irudi berria sinetsi eta bultzatu behar dute.

## 11 BIBLIOGRAFIA

ABC (2013) *Aragoiko eskiaren datuak 2013an*. Eskuragarri:

<http://www.abc.es/local-aragon/20131123/abci-nieve-temporada-esqui-201311211147.html>

Kontsulta eguna: 2014/04/14

EIMundo (2013) *Eski-estazioen mapa*. Eskuragarri:  
Gazte Geografia. 1 (2014), p. 17-38; ISSN 2341-3239

<http://www.elmundo.es/elmundodeporte/nieve/estaciones/index.html>

Kontsulta eguna: 2014/04/11

Gobierno de Aragón (2012) *Plan Diferencial de Promoción Turística de Aragón*. Eskuragarri: <https://www.aragon.es/estaticos/GobiernoAragon/Departamentos/EconomiaEmpleo/Noticias/TURISTICA%20DE%20ARAGON%202012-2015.pdf>

Kontsulta eguna: 2014/04/11

Font-Garolera, Jaume (2010) *Turismo y Políticas Turísticas en el Pirineo Catalán*. Eskuragarri: <http://www.eitelkartea.com/dokumentuak/FONT.pdf>

Kontsulta eguna: 2014/04/11

IGN (2005) *Urtarokotasuna lurralde espainiar ezberdinetan*. Eskuragarri: [http://www.ign.es/espmmap/graficos\\_turismo\\_bach/Turismo\\_Graf\\_04.htm](http://www.ign.es/espmmap/graficos_turismo_bach/Turismo_Graf_04.htm)

Kontsulta eguna: 2014/04/13

Lur Hiztegi Entziklopedikoa (1994) *Zortzigarren Liburukia*. 444 eta 445 orrialdeak.

Nevasport (2014) *Eski-estazioak Espainian*. Eskuragarri:

<http://www.nevasport.com/estaciones/Espana/>

Kontsulta eguna: 2014/04/11

OTH (2012) *Informe Turístico de la provincia de Huesca 2011-2012*. Eskuragarri:

<http://www.observatoriohuesca.com/fotosbd/412456635radE861A.pdf>

Kontsulta eguna: 2014/04/13

Torres Delgado, Anna (2008) *Sostenibilidad y Turismo en el Pirineo Catalán*. Eskuragarri:

<http://www.unizar.es/centros/eueeh/master/TORRES.pdf>

Kontsulta eguna: 2014/04/13

Turismoaren Oinarrizko Eskuliburua (2008) *Turismoaren Fenomenoa Ezagutzuz*.

Santiago Olarreaga Rivilla eta José María de Arenaza Mújica

Val D'Aran (2010) *Desestacionalización, Especialización e Internacionalización del Turismo*. Eskuragarri:

[http://www.evalia.biz/austrianworkshop/images/ponencias/INNOVA\\_PTO\\_PILOTO\\_VALL%20DARAN\\_ES.pdf](http://www.evalia.biz/austrianworkshop/images/ponencias/INNOVA_PTO_PILOTO_VALL%20DARAN_ES.pdf)

Kontsulta eguna: 2014/04/13




# 1. ERANSKINAK

## 1. Eranskina (Espainia mailako eski-estazioen distribuzioa)




(El Mundo, 2013)

## 2. Eranskina (Urtarokotasuna lurralde espainiar ezberdinetan)



(IGN, 2005)


**3. Eranskina** (Huescako hotelen okupazioa estatukoarekin alderatuz)



(OTH, 2012)

**4. Eranskina** (Val D’Aran-eko produktu turistiko berrien lehenasuna)

5.



(Val D’Aran, 2010)

## 6. Eranskina (Turisten motibazioa Aragón)

<b>Número de viajes de los españoles por actividades realizadas en destino interno. AÑO 2010</b>		
<b>ACTIVIDADES REALIZADAS</b>	<b>DESTINO ARAGÓN (% de los viajes totales)</b>	<b>TOTAL DESTINO INTERNO ESPAÑA (% de los viajes totales)</b>
1. Compras	54,0	64,8
2. Deportes	35,3	18,9
2.1. Golf	--	0,2
2.2. Deportes de Nieve	10,2	1,3
2.3. Deportes Náuticos	1,3	3,9
2.4. Caza	--	0,2
2.5. Pesca	0,0	0,6
2.6. Deportes al Aire Libre	21,0	11,9
2.7. Deportes de Riesgo	1,9	0,2
2.8. Otros Deportes	0,9	0,6
3. Gestiones administrativas	0,4	0,5
4. Visita a familia o amigo	53,8	50,6
5. Espectáculos deportivos	0,9	1,3
6. Espectáculos culturales	13,2	16,0
7. Visitas culturales	50,7	50,2
8. Visitas Parques Temáticos	1,3	3,4
9. Juegos de Azar	--	0,4
10. Congresos y Reuniones	0,1	0,1
11. Playa	0,7	41,6
12. Balnearios, Talasoterapia	2,5	2,4
13. Acontecimientos religiosos	8,9	6,5
14. Actividades Gastronómicas	44,7	50,3
15. Salir de copas o discotecas	31,6	31,3
16. Pasear por el campo/disfrutar de la naturaleza	54,6	42,6

Fuente: FAMILITUR 2010. IET.

(Gobierno de Aragón, 2012)